

Ermuko Txirrindulari Elkarte

Hogeita hamar urte pasatxo duen talde honek herriko ume eta gazteengan txirrindularitzarako zaletasuna piztea du helburu. Denboraldia apirilean hasiko da eta hortik aurrera lasterketetan ibiliko dira ermuarrak ia astebururo.

- Zein urtetan sortu zen taldea?

1979ko uztailaren 19an jaio zen, Santxauetan egiten den lasterketa antolatzeko ezinbestekoa zelako taldea legalizatuta egotea. Hala ere, urteen joan-etorriarekin, gero eta gauza gehiago antolatzen joan gara eta eskolako umeekin ere taldea osatu dugu, esaterako.

- Zenbat kide zarete?

9 eta 12 urte bitarteko 8 ume daude gurean; kadete eta jubenilen artean, berriz, 5 lagun. Elorrioko taldekoekin bat eginda gaude: umeak kadete egiten direnean, Ermukoak Elorriora joaten dira eta jubeniletara heltzerakoan, berriz, Ermukoak zein Elorriokoak Ermura datoz. Horrela, herri bien artean talde handiagoa sortzen dugu. 18 urte betetzen dituztenean Eibarrera joaten dira, Euskal Bizikletak duen Debabarrena taldera, eta horrela jarraipena ematen zaio gure taldeari.



- Zeintzuk dira zuen helburuak?

Alde batetik, umeek 14 urte bete arte kirola egitea, txirrindularitza edo beste edozein kirol oso garrantzitsua delako. Hortik aurrera, bizikleta gustukoa dutenei kirol hau praktikatzeko jarraitzeko aukera ematea da gure helburua, ahal dugun gauza guztietan lagunduz.

- Zein maiztasunekin biltzen zarete?

Urkaregi jatetxean edo elkarte gastronomiko batean biltzen gara astelehenero. Asteburuan gertatuko eta hurrengo astekoak komentatzen ditugu. Tartean Alberto Lasuen (lehendakaria), Galder Lasuen eta Nerea Redondo (jubenilen arduradunak) eta Mari Jose Goigogana (umeen arduraduna) biltzen gara. Gainera, denboraldia bukatzen denean bazkaria egiten dugu Elorriokoekin, umeen gurasoekin eta txirrindulariekin.

- Zeintzuk ekitaldi egiten dituzue?

Eskolako umeek urte osorako egutegia izaten dute. Apirilean hasi eta irailera arte lasterketak izaten dituzte ia astebururo (22-25 lasterketa inguru). Ez dute errepidean korritzen, zirkuituetan baino, eta Ermukoak Hambreko industrialdean egiten dugu. Jubenilek 45 bat lasterketa egiten dituzte Bizkaian, errepidean, eta Ermukoak uztailaren 17an izango da aurten. Ziklo-krosekoek, berriz, 18-20 lasterketa egiten dituzte Euskal Herri osoan (iazkoa azaroaren 7an izan zen Ermuan).

- Zuekin harremanetan jartzeko?

Interesa dutenek, Alberto Lasuenekin berba egin dezakete (686 944 123) edo ermukotxirrindulari@hotmail.com hlebidera mezu elektronikoa bidali.

Dorleta Vidal

**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

San Antonio

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

Garraioak, S.L.

636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

GARAGARDOTEGIA

CERVECERIA

ZYTİK

OTARTEKO eta
IMPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
berezitasuna

943 17 39 78